

Urrira arte **775 milioi** euro baino gehiago sinatu ditu **hipoteka 'berde'tan**

Kutxabankek 2.000 milioi euro eman ditu finantzaketa jasangarrian

- **1.150 milioi euro baino gehiago bideratu ditu trantsizio energetikoa sustatzen duten enpresa-proiektuak eta proiektu korporatiboak bultzatzera**
- **Hipoteka-ekoizpen berriaren % 22 jasangarria da jada, energetikoki eraginkorrak diren etxebizitzak erosten laguntzen baitu**

2021eko azaroaren 18a. 2021 osoan zehar, **Kutxabankek negozio-eredu jasangarria sustatzeko** apustu estrategikoa sendotzen jarraitu du, ekonomian, gizartean eta ingurumenean eragin edo inpaktu positiboa maximizatzeko gai izango dena, kapital-fluxuak birbideratuz eta negozio-eredu jasangarriagoetarako trantsizioan bezeroei lagunduz.

Illo horretan, urteko lehen hamar hilabeteetan finantza-taldeak **1.900 milioi euro** baino gehiago bideratu ditu **finantzaketa jasangarrian**, karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioa sustatzen duten ekimenak bultzatzeko. Kopuru hori **200 milioi** euro handiagoa da finantza-taldeak aurreko ekitaldi osoan kanalizatutako finantzaketa jasangarria baino, eta horrek argi adierazten du **gizartean eta ingurumenean eragin positiboa duten inbertsioak sustatzeko Taldearen konpromisoaren** benetako neurria.

Finantzaketa jasangarri horren zati handi bat Bankuko bezero partikularrek **energetikoki eraginkorrak diren etxebizitzak** erosteko erabili da, Hipoteka Berdea izenekoaren bidez. Mailegu-mota horrek energia-ziurtagiririk handienak dituzten higiezinentzako finantzaketa-baldintza bereziak eskaintzen ditu, baita horiek 'Aseguru Berdea'ren bidez babestea ere.

Urriaren amaierara arte, hipoteka-modalitate horren barruan **4.500 eragiketarik** gora harpidetu ziren, **777 milioi** euroko balioarekin guztira, iazko aldi berean baino **% 60 gehiago**. Gainera, hipoteka berri **guztien % 20** horrelako maileguetan sartzen da.

Era berean, beren eragin-eremuetan **gizarte- eta ingurumen-garapenari** laguntzen dioten ekimenak abian jarri dituzten enpresa eta erakundeei laguntzen jarraitu du Kutxabankek.

Enpreetan eta erakundeetan espezializatutako dibisioek **1.150 milioi** euro baino gehiagoko eragiketak onartu dituzte **ekonomia berde eta jasangarriaren** barruan sartutako inbertsioetan. Inbertsio horiek energia berriztagarriak sortzeko eta erabiltzeko

proiektuak, mugikortasun jasangarriaren alde egiten duten jarduerak, edo etxebizitza sozialak, babestuak eta energetikoki eraginkorrak, sustatzen dituztenak bultzatu dituzte, besteak beste.